

JUAN SOLDADU, JESUKRISTO ETA SAN PEDRO

Mendatako Elias Sololuzek kontatuta

Juan Soldadu ogia galtzarpean hartu eta bastoiagaz joan zan bidean zehar eta bi topatu ditu, eta ogi zati bat eskatu deutsie:

– Baina urrun joan behar dot.

Eta gose dirala eurek:

– Tira!

Zatitxu bana emon deutsie eta joan da atzera barrian aurrera eta, atzera eurek biak, eta besteak paluagaz:

– Asto demoninook bazatoze atzera barrian? ez daukat askorik baina eutsi zati bat.

Gero osterara be hirugarrenean be tak! urten eta...

– Paluagaz jo behar zaituztet hirugarrenean e! bueno oin zeuekaz noa.

Joan dira hirurak alkarregaz, Jesukristo, San Pedro eta bera Juan Soldadu, iluntzea zan. Juan Soldaduk, San Pedro eta Jesukristo ziranik ez ei eban jakin eta joan dira etxe batera eta Jesukristok jo eutsien atie eta:

– Ostatua emongo zeunkie?

– Ene! ohean geixoa daukagu ba!

– Sanatuko jatzu. –Jesukristok–.

Eta Juan Soldadu listo, harek jakin nortzuk ziran. Jan dabe aparria hirurak, eta Jesukristok esan deutsie beste biei, San Pedro eta Juan Soldaduri:

– Joan zuek ohera!

Bota ditu ohera eta bera eskatzean, esan deutsie etxekoei:

– Ekarri iketza, bota beheko suan eta egin sua.

Egin dabe sua eta bestea Juan Soldadu ate zuloatik begira, ohean dabelakoan.

– Ekarri geixoa –Jesukristok–.

Ekar dau geixoa ta bota dau sutara, sartu dau eskua surten, atara dau gaixoa eta bixi-bixirik sanietuta. Juan Soldadu biharamon goizean:

– A! Ni banajoak!

Bere artean esan joan:

– Ikesei joatak gauza bat!

Beste biak itxita bera ospa, joan da etxe batera gabaz eta:

– Ostaturik badaukazue?

– Ez, ez daukagu ba!

– Ostaturik emoten badozu geixoa sanatuko deusuet.

– Hemen ez dago geixorik baina hain etxetan dago.

Joan da hain etxetara eta urte bian gaixoa ohean dago:

– Sanatuko jatzu ostaturik emoten badozu.

Harek bajekian Jesukriston moduen, sua egin dau eta erre geixoa, eta gero biharamonean urkamendira, badoa eta eurek biak arbolapean itxaroten:

– Hor zagoze asto demoninook, zuegaitik urkamendia daukat nik!

Jesukristo jakitun eta:

– Zer pasetan da ba?

– Zeuri begire, ate zuloatik begire ikesten egon nintzen eta erre jate geixoa eta orain nik zer egin behar dot ba?

– Pedro joan hain etxetara eta... ladrilu baten azpian hazur bi dagoz eta atara. –Jesukristok esan eutsan–

– Ondo dau.

Joan da beragaz eta atara ditu, eta laguna bixirik barriro.

– Nortzuk zarie ba? – Juan Soldaduk–.

– Ni Jesus, eta hori Pedro.

– Orduan ni banoa zuekaz.

Eurekaz joan ei zan baina gogaitu egin ei eban:

– Eskean baino ez bada ibilko nok eta banajoak.

Eskapeu eutsien barriro, ta hor hiltea suertatu jakon Juan Soldaduri eta hil zanean zeruko atea jo ei eban eta San Pedrok urten:

– Nor zara?

– Juan Soldadu

– Ez zenduan etorri gura izan gurekin lehen zerura eta orain joan mundura atzera.

Eta Jesuskristo etorri atzeko alderditik eta:

– E Pedro! horrek zeruak irabazita daukaz karidadeagaz, jaten emon deusku bai eta zeruak irabazi ditu... eta zerura.

Mendata gure geurea denontzat

Idoia Mallea Lamikiz

Mendatako Udala

Bilbo 2002